



Konpartsak jaietako gatza eta piperra dira, dinamizatzaile boluntarioak.

PREGOIA

'Mom', Bilbao 'fantastic' da!

Honako hau da Bilboko Konpartsek aurtengo Aste Nagusirako moldatutako pregoia:

— Hello!
— Mom, mom! Johnny naiz, zure bihotzeko semea. Zelan Boisetik? *No kidding*. Bilbon nago, bai ondo ulertu dozu, Bilbon, egundoko parrandan!

— Zer dinozu, non zagozala?
— Bilbon mom. *Basque Country*an, *fantastic da*, *it's a really amusing place*, benetan. Kontseilu itzela zurea. Gure Ama Euskal Herrira etorri nintzan *on vacation*, zuk esan zeneustan moduan, Gernikako Arbola maitea ikusteko.

Eder eta berdea da. Halandabe, zeruko su koloretsuen pean, Areatzako ezkiei sano ikusgarri deritxet.

Wait, ez eskegi, jaietarako konpartsek ipinten dabezan *bar* baten nago zutunik. Egon, beste aldera joango naz.

Hemen nago osteria be. *The sun is rising* eta oraindino jentetzea dantzan, kantsau barik. Sei bat jaialdi egunean, eta guztiak *free*.

Eta antzerkia, eta harriak jasoten dabezan morroskoak, eta beti *hungry* dagoen Gargantua, eta bazkariak, eta bokatak... *red wine* eta

txakolina! Orain badakit, euskadunak *beautiful* dira, *they're nice guys*, mom.

— Baina seme...

— Bai, mom. Zure CDko *singer* horreek aditu dodaz plazan. Hantxe egon dira trikitixa, panderoa eta danagaz, nire aurre-aurrean. *You just wouldn't believe it. It's incredible!* Itzela!

— Ai, seme! Burutik sano zagoz?

— Ez ba, lehengo lepotik burua. Makina bat lagun batu gara, eta urrunean dagozanak be ekarri gura dabezala dinoe, Etorri zu be zeure *country*ra, gustauko jatzu eta.

— Zera! Zu ez zagoz bape natural, ezta antzik be, seme!

— Aikor! Edozeinek kontauko deustu zuri entzierroarena! *Bull* bat be ez dot topau kale osoan. Ganera, hemengo behiak ez dira ranchekoak lakoak, geldi geldi dagoz, ez dabe bedarrik jaten eta dotore jantzi dira.

— Ene bada, galdu gara!

— Agur mom! Nasai, zezenak atrapetan ez banau laster bueltatuko naz.

— Klick

(Aste Nagusian, goizeko seirak aldera, zortzi ordu gitxiago dira momentu honetan Idahon)

ALDARRIKAPENA

Jai-giroan, gizarte lanarekin lotutako aldarrikapenak egiten dituzte zenbait konpartsek

Batzordean duten pisua murriztu nahi izan dute, beste eragile batzuk sartuz. Egun, konpartsetako zazpi kidek parte hartzen dute batzordean. Aida Fernandez konpartsetako programazio bozeramaileak azaldu duenez, «EHUK egindako azterketa baten arabera, hiritar gehienak, % 90, gustura daude gaur egungo jai ereduarekin». Bilbotarrek jai eredu horri erakutsitako babes maila azpimarratzen du Algara taldeko Fernandezek.

Aurten, xake, igel-toka eta sukaldaritza txapelketak antolatutako konpartseroek. Abuztuaren 25ean, zapatuan, ospatuko dute Konpartsero Eguna. Eta jaiei amaiera emateko, Bilboko Konpartsen hiri krosa antolatu dute, igandean.

Konpartsek egiten duten lanik gabe ez legoke Aste Nagusirik Bilbon. Konpartsak dira jaietan giroa sortzeko akuilu nagusiak.

Aste Nagusia konpartsen ekimenari esker jaio zen. Jaia sortu zeneko 1977ko Bilbok eta gaur egungoak ez dute zerikusi handirik: konpartsak biak elkartzen ahalegintzen dira.

konpartsen
eguna 2001

Detailaren 21ean • Arenal • Bilbo

Egun osoan zehar: Bertoko produktuak, txakolina, sagardoa,... Paella Txapelketa, Herri Bazkaria, Erromeria, Giganteak,...

Bilboko
konpartsak